



Ines Mari:
“Lehenengo pertsonia
dago eta gero musikia”





**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Euskara lau haizeetara
Euskararen Nazioarteko Eguna
Euskararen Nazioarteko Eguna
2005eko abenduaren 3a





OIER ZUBIZARRETA

Egun bakar bateko kontuak

Pasatu da X. Gaztaiñerre azoka ere. Azken urteetan hasten eta sendotzen joan da jai giroan ospatzen dogun egun hau. Danok ikusi eta erosi genituen hainbeste lan eta gogokin landutako barazki, abere, esku-lan eta bestelako produktuak. Festa giro ederrean joan zen eguna.

Eta astelehena heldu da. Baserritarrek postua prest dute merkatu plazan baina azoka ia hutsik dago, egunero bezela. Nola ulertzen da hau? Baserri mundua folklore hutsa al da?

Gaitza egiten zait egoera hau ulertzea baina aldi berean ez hain zaila, egunerokotasunean ditugun joerak bestelakoak baitira. Gutako nor juten da herriko plazara erosketak egittera? Edo beste era batera esanda, nor ez da juten komertzio handietara (Eroski, Dia...) azokan aurki diitzakegun produktuak erostera?

Plazan daren produktuak argi dakigu nun produzidutakuak izan diran, badakigu soraluzekuak dirala baita zeñek landutakuak. Aldiz bestelako saltokixetan topatzen ditudun ugari ez dakigu nunguak diran ez zeinek landutakuak eta badakigunetan erantzuna tristia da, ehundaka edota milaka kmtara produziduta dare. Alde batetik bestera mugitu ahal izateko eta kanpoko produktuak ekartzeko azpiegitura erraldoiak egiten dira (errepide berriak, superportuak, AHT,...) lur zati handiak apurtuaz (gehixenetan lur emankorrenak), energia gastu haundixak eraginaz eta bestee-kiko menpekotasuna sortuz.

Egunerokotasun zoro honen aurrian, kontsumitzaile arduratsuak izaten ahalegindu beharko ginake. Ahal dan einian eguneroko azoketan bertako eta sasoiko produktuak erosizaz baserri mundua bultzatuko genduke folklore hutsa bihurtu ez dadin. Esandakuak gitxi balira, baserritarrak bestelako lanik betetzen dau danon onuratan, bestela zeinek uste duzue mantentzen dabela mendixa kaletarrok pasiora juateko moduan? Baserritarrak eta baserri munduak bizirik iraun bihar dabe eta hortarako danok dakigu egun bakar bateko gauzak ez dabela asko balio.

Telegrapak

Kaixo irakurle. **Stop.** gai asko dauzkagu jorrazteko ale honetako sermoian. **Stop.** Gaztetxeko mutil baten atxiloketia lehenengo. **Stop.** pankarta baten "ilegala" dan zeozer marraztu. **Stop.** eta ipini urretik... **Stop.** 20 ertzain Gila zubixan eta 18 urteko mutila esposatuta komisaldegira. **Stop.** hala agintzen ei dau legiak. **Stop.** gizalegetik aparteko legia izan bihar dau horraitxio!. **Stop.** eta espektakulu hori ixil ixilik jan biharko dogu gainera!. **Stop.** Oñatiko Gaztetxia botatzia moduan. **Stop.** itxuraz hemenguari berak ukats egin arte lagako ei dotse. **Stop.** zorionekuak gu. **Stop.** hala diño Udalaren Hirigunia Zaharbertzeko Planak. **Stop.** Udaletxian dago. **Stop.** badakizue Gaztetxeuok eta gainerako etxe jabiok informaziño gehixao nahi izanez gero eguerdixan atiak zabal zabalik daukazuezela sartzeko. **Stop.** eta urtetzeko be bai noski. **Stop.** aurrerago jakingo dogu ibetondoko eraikinak noiz arte lagako diran zutik. **Stop.** eraikinen jabiak zer diñuen eta abar. **Stop.** batez be eurei eragingo dotse eta. **Stop.** eta gaiz aldatuta... **Stop.** hezkuntzako legiak bai eragingo doskula danori. **Stop.** eta erlijjiñuaren ipuintxua da eztabaidagai nagusixa. **Stop.** beste ezer badakigu?. **Stop.** ezer gutxi. **Stop.** eta edarra litzake eliztiar amorratu diranak kondoiaren erabileraz eta gai eta lesbienen eskubideez eztabaidatzia neurri berdineko entusiasmoz. **Stop.** horrek bai leunduko leuke mundu santu honetako sufrimentua bastante. **Stop.** ez dozue us-te? **Stop.** Gora Santa Xexili!. **Stop.** Amen!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonia 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta Maketazioa: Maku Oruezabal
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldzkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA




GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ERREPORTAIA

Ines Mariren bizitza musikala gogoratu nahi izan dugu erreportai honetan; musika irakasle garaiak eta baita bere ibilbide musikala ere.



Zorion agurrak



**Nora Ortiz
de Lejarazu**

Azaruaren 29xan
2 urte
**Zorionak
politta!**
Musuak etxeko
partetik!



**Iban
Ayora**

Azaruaren 30ian
10 urte
**Zorionak eta
musuak familiariaren
partetik!**



**Jabier
Azkona**

Abenduaren 2xan
**Zorionak
fenomeno!**
58 muxutxu etxeko
zure "printzesen"
partez!

Gutunak

700 BAIETZ!!!

39 °C-tako sukarra daukat, egundoko egonezina. Osasun etxean txanda hartu eta kontsultan sartzerakoan "Buenos días" esan dit medikuak. Nik euskaraz erantzun eta ¿¡Qué!?! bota dit. Badaukat nahikoa burukomin, gainera sentitzen dudana erdaraz nola esan pentsatzen hasteko.

Beste behin ere hizkuntza eskubideen urraketa jasan dugu. Eta milaka kasuren artean beste bat baino ezta hau.

Badira zenbait urte osasun etxea euskalduntzeko lanean dihardugula. Hainbat ekintza burutu ditugu. Osasun etxeko egoera aztertzeaz gain, jasotako datuak kaleratu genituen. Muralak eta elkarretaratzeak ere ez dira falta izan. Nork ez ditu irakurri anbulategiko atearen ondoan dauden bi bertsoak? Pixkat bat atzeraka egin eta leiho ondora begiratu ez gero, 318 zenbakia ikus daiteke. Osasun etxea euskalduntzearen aldeko sinadura bilketaren emaitza.

Orain 2 urte Soraluzeke osasun etxeko langilegoaren %25 baino ez zen

euskalduna, eta gaur egungo egoera ez da askoz hobea, % 37,5 baita euskal hiztuna. Kontuan izan behar da urte hauen artean oposaketak izan zirela, horrek argi uzten duelarik euskarazko prezentzia eskasa izan zuela bertako eskaeretan. Datu hauek okerrera edozein momentutan egin dezakete, ordezkatzerako datoren edozein erdal hitzuna izan daiteke elako.

Datorren urtean berriz ere oposaketak izango dira. Azken oposaketetan bezala hemen ere, ez dugu iristen hizkuntza eskakizunik egingo denik, ondorioz beste behin baino gehiagotan ikusiko dituzu horrelako gutunak zure txoko hortan.

Lehenago esan bezala, gaur arte 318 sinadura bildu ditugu. Herri euskaldun batean 318!? Gure aurten erroka 700 biltzea da. Zuen esku dago hori!!

Eman zeure sinadura! Eskubidea dugulako osasun etxean euskaraz!!

Soraluzeko EHE

Ez dut ulertzen

Urriak 17an Naia Intxaurre Mendizabal jaio zen, nire alaba. Nire arazoa da ez didatela utzi alaba Soraluzean erregistratzen, nire gizona ez dagoelako hemen enpadronatuta. Zornotzan, ordea, bera bertakoa da, ez dugu euki

arazorik. Ni herrikoa izanda, zergatik dago arazo hau? Ez dut ulertzen. Gero herrian biztanle gutxiago dagoela? Normala.

Leire Mendizabal



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Ikastaroak

INSTALATZAILE ARGIKETARIA

Hernani Institutuak instalatzaile argiketaria izateko ikastaroa. Baldintzak: Langabeei zuzendua. Iraupena: 260 ordu. Ikastaroa astelehenetik ostegunera izango da, 15:30etatik 20:30etara 2006ko urtarrilaren 16an hasiz. Plazakopurua: 8. Balioa: doan. Informazioa: 943 551958 (Jesus Ezquerro).

Ekintzak

MENDIKO BIGARREN ESKUKO AZOKA

Pol-Pol Mendi Taldeak antolatuta Pol-Polen areto nagusian azaroren 28tik abenduaren 3ra bitartean 19:00etatik 20:30etara, astelehenetik ostiralera, eta 18:00etatik 20:00etara, larunbatetan eskiko eta mendiko bigarren azoka aurrera eramango du. Informazioa: 943 764851

Lehiaketak

FILM LABURREN XI. "LEHIAKETA

Errenteriako Udala. 2004 baino lehenagoak ez diren lan originalak, VHS, SVHS edo DVD formatuan, 15 minututik beherako iraupenarekin eta edozein gairi buruzkoak eta edozein hizkuntzatan. Sariak: 1.saria 800 euro. Epea: otsailak 17. Informazioa: 943 449600.

Jaiotakoak

DAVID PALACIN ZAROBE
MIREN RIVERO BALLESTEROZ

Jaiotakoak

MARIA LIZARRITURRI ARRIETA
MARIA ARGARATE AGIRREBEÑA

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIVA

Esku eskura! Telf: 943 75 13 45

PASCUAL CHURRUCA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruca.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Hezkuntza Lege Berria onartzekotan da Espainiako Gobernua. Gaur egun hautazkoa den erlijio irakasgaiak batzbesteko akademikoan kontuan ez hartzeko asmoak hauts asko harrotu ditu eliza eta ingurukoen artean.

Erljio irakasgaiak notarako balio beharko lukeela uste duzu?



Mario Canales
29 urte, tabernaria

Ondo dao aukeratzea eta ez puntuatzia be bai, ze orduan ikasleak ez dabe irakasgai hau erabiliko besteetan ez ahalegintzeko.



Ander Moya
14 urte, ikaslia

Beste asignatura baten moduan baloratu bihar leukie. Zuk eskolan emoten badozu ba batzbestekua igotzeko balio biharko dau.



María Jesús Arrizabalaga
60 urte, dendaria

Bakoitzak izan bihar dau libre etika edo erlijioa aukeratzeko baina eskolan emoten badabe notarako izan bihar leukie.



Mari Mar Deza
42 urte, dendaria

Ez dot uste lege honek eliziaren kontra egitten dabenik. Pertsoniak erabakitzia da onena eta normalana. Oso ondo iruditzen jata optatibua izatia.



María Isabel Marín
35 urte, dendaria

Oso ondo iruditzen jata erabakitzia baina nik uste dot eskolan emotan dan danak notarako izan bihar dabela.



Pedro Agirre
72 urte, jubilatua

Nik uste dot erlijioa aukeratzan badozu ba notarako balixo biharko leukie beste edozein irakasgai moduan.

EDURTZA kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Ertzantzak herriko gazte bat atxilotu zuen

Azaroaren 11 ko gauerdian ertzantzak herriko mutil gazte bat atxilotu zuen Gila zubian, herritarrez jantzi-tako ertzain bik identifikatzeko eskatu eta pankarta bat antzeman ziotenean.

Oñatiko Gaztetxearen itxieraren aurkako testua zeraman idatzirik pankartak, eta Ertzantzak adierazi zuenez, PNV-EAJ hizkiak zeramatzan idatzirik diana baten barruan. Gazteari esposak jantzi eta komisaldegira eraman eta bertan eman zuen gaua. Mehatxu eta koakzioa egozten



dizkiote eta epaiketaren zain dago orain. Hurrengo egunean, Gazte Asanbladak atxiloketa salatu zuen.

Erregetxeko aparlekuen proiektua aurrera doa

Moyua enpresa Erregetxeko lurrazpiko proiektua erredaktatzen ari da aste hauetan. Behin erredakzioa bukatuta, lanak urtarrilean edo otsailean hastea aurreikusten da, eta 9 hilabeteko luzapena izatea. Datozen asteetan, aparkalekua erosteko interesa agertu zuten 160 herritarrekin jarriko dira harremanetan enpresako arduradunak eta garage plaza hartzeko prest dauden galdetu. 135 erosle baino gehiago balego, zozketa egingo litzateke hauen artean.

Istripu larria

Maltzagara bidean

Azaroaren 12an, arratsaldeko 16:00ak aldera, bi turismok elkar jo zuten Maltzagara bidean. Istripuan, 37 urteko emakumezko soraluzetar bat (K.B.M.) eta gizonetzko oñatiar bat zauritu ziren. Soraluzetarrak zauri larriak jasan zituen eta suhiltzaileek atera behar izan zuten autoaren barrutik. Dagoeneko istripu bat baino gehiago izan da errepide zati horretan.

Bidezko Merkataritza dendak Kiroldegian



Parrokiako Misiotarako Batzordeak Bidezko Merkataritza denda jarriko du aurten ere. Bertan, Hirugarren Munduko herrialdeetatiko artisau, ehungintza lanak, eta jatekoak izango dira salgai, bidezko prezioan. Aurreko urteetan denda abadetxean jarri izan bada ere, aurten kiroldegian jarriko da. Salmentako diruak Haitiko Sorostegi edo sokorro gela bat egiteko proiektuan laguntzeko erabiliko dira.



OROITZA

2003ko abenduaren 23an hil zen
M^a TERESA ARISTI LARRAÑAGA *Goian bego*

“Zure umoria eta maittasuna beti izango da gure bihotzean”

Urteurreneko meza, abenduaren 23an izango da 19:00etan.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



Zabalik da PER-ari alegazioak egiteko epea

Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziari alegazioak egiteko epea azaroaren 22an zabaldu zen, Boletin Ofizialean argitaratu ostean. Kaltetuek Abenduaren 26ra arte izango dute alegazioak egiteko aukera. Udalak hirigintzako departamentua jarri du herritarren zerbitzura bertan informazioa jaso eta alegazioak egiten laguntzeko. Interesatuek bertara jo dezakete eguerdiko 11:30etatik 13:00etara bitartean. Hirigintza sailetik adierazi digutenez 14 herritar joan dira orain arte Udalera informazio bila. Eskatzen dutenei, euren etxebizitzaren



fitxa urbanistikoa emango zaie eta alegazioak egiten lagundu.

Onartzen diren alegazioekin plana aldatu eta 2006an onartuko da, behin betikoz.

Udal proiektuekiko kezka SAHen Herri Batzarrean



Soraluzeko Askatasun Haizeak herri plataformak deituta herri batzarra (30-35 lagun) egin zen joan den asteazkenean Udaleko Pleno Aretoan, Udal Gobernuak azkenaldian hirigintza arloan hartu dituen erabakien berri eman eta iritzi trukaketa egiteko. 3 gai erabili ziren batzarrean: Erregetxeko aparkalekuak, Diputazioak herrian egindako inbertsioak eta Hirigune Historikoa Birgaitzeko

Plan Berezia. Hiru gai hauen inguruan dagoen informazio falta salatu zuten SAHko ordezkariak. Aparkalekuen kasuan, hauek pribatizatuz, Udalak errezena egin duela adierazi zuten, eta ez dituela beste aukera batzuk aztertu ere egin. Ur transbaseari dagokionez, zenbait herritar kezkatuta agertu ziren aukera gehien daukan ibilbidearekin: Bide Gorria-Olako Zubia-Errekaldia-Atxuri-Rabal-Balategieta eta Sagar Erreka auzoa lotuko dituenarekin hain zuzen ere. Etxe zaharrez inguratutako kale horietan tubo haundi bat sartzeak erakinetan zartadak eragin ditzakeelako eta etorkizunean ur-jarioak izango direnaren bildurrez. PER-aren kasuan, SAHk lehenatasuna herriko beste premia batzuei ematea eskatu zion Udal Gobernuari, eta eurak ere plan honi alegazioak egingo dizkiotela adierazi zuten.



Euskararen tokia aldarrikatzen

Euskararen tokia aldarrikatzen Soraluzeko Euskal Herrian Euskarazek hainbat ekimen burutu ditu Ezabaketa Egunaren barruan. Azaroaren 19an herrian zehar kalejira egin zuten trikitilariz lagunduta. Kalejiran horretan, erderaz zeuden errotulu eta oharren gainean euskararen aldeko pegatinak itsatsi zituzten. Azaroaren 26rako berriz, ambulatioaren aurrean enkartelada deitu dute euskarazko zerbitzu osoa eskatzeko. Arratsaldean Iruñean manifestazioa egingo da Euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko.

Euskal Selektzioaren alde sinadurak

ESAITEk (Euskal Selektzioaren Aldeko Eritzi Taldea) Euskal Selektzioaren Ofizialtasunaren aldeko sinadura bilketa hasi du Euskal Herri osoan. Soraluzeko kirolari federatu askok ere sinatu dute ESAITen manifestua. Sinadura guzti horiekin abenduaren 23an ekitaldi erraldoi bat burutu nahi du ofizialtasunaren alde. Bere sinadura eman nahi duten 16 urtetik gorako kirolari federatuek abenduaren 5erarte izango dute horretarako aukera (Pil-pilean daude sinadura orriak).



Diseinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150

Faxa: 943752118

SORALUZE

Ines Mari:

“Umiekin lan egittiak satisfaziño haundixa emon dosta”

Hilaren 22an Santa Zezilia eguna izan zen, musikarien zaindariaren eguna. Urte askoan Ines Mari Maiztegi "Txiket"-ek eta bere ikasleek goizeko zazpiretan kalejira eginaz ospatzen zuten egun hau. Urte haiek gogoratu nahi izan ditugu Ines Marirekin, eta baita bere bizitza musikalaria errepasso bat eman ere.

Nundik jaso zenduan musikarako zaletasuna?

Etxian afiziño haundixa zeguan. Ama oso kantarixa zan. Aitta be zalia zan; gu ohian eta bera sukaldian banku txiki baten gitarria probatzen gogoratzen dot. Etxian lehenengo soiñua, 12 bajukua, gu ume-ume giñala sartu zan. Hauraxe jotzen genduan, belarriz. Gero lagunekin hasi nitzan jotzen, Askabeitti eta Urkiazelaira juaten giñanian.

Zeiñekin ikasi zenduan gero musikia?

Jente askokin. 15 urte nekala Felix Aranzabal Angiozarko itsuakin soiñua; monjekin solfeua eta pianua; Don Asensiokin solfeua; Alfredo Txirlake Bergararrakin be solfeua; Mari Tere Mujikakin pianua; eta Cristina Larrañagakin gitarra zi-



Ines Mariren ikasleak Soraluze zinean 1984ko kurtso bukaerako jaialdian.

fraua. Beranduago, Domentx Uzinekin diktado musikalak.

Noiz hasi ziñan zu musikia erakusten?

81-82. urtian Atxuriko pisu baten partikularrak emoten hasi nitzan. 83 an Santa Anara juan giñan. Solfeo pixkat erakusten notsen hasieran, segiduan melodikia hartzen zebe eta gero soiñua edo gitarria. Santa Anan 7 urte egin genduzen.

Gero musika eskolia sortu zenduen...

Oin dala 15 edo 16 urte izan zan hori. Atxito zeguan orduan teniente alkate eta zoezer egin bihar gen-



Ines Mari Maiztegi, Plaza Zaharreko arboladian.

“Santa Zezilia egunian urteroko goizeko 7retan urtetzen genduan”

duala pentsau genduan. Era guztietako instrumentuak bihar ziran herrixan, txaranga bat sortzeko gixienez.

Ze ekintza egitten zenduen urtian zihar?

Urteroko jaialdixa ekainian egitten genduan, Soraluze zineman lehenengo eta kiroldegiko zinian gero. Eus-

kal Jaixetan be urten izan genduan *Sekulako Pandilla* izenakin; eta Sata Zezilia egunian, urteroko goizeko 7retan urtetzen genduan kalejiria egittera. Musika eskolatik aparte, Gabonetan Olentzerokin urtetzen neban soiñuakin presuen alde. Don Benan zion denboretan elizako umien korua be zuzendu neban.

Santa Zezilia eguna lehenago be ospatzen zan?

San Inazio bandakuak gure moduan ospatzen zebe, goizeko 7etan. Beste alde batetik, Allegroko taldiak



Badiola, Ines Mari eta Urizarrek Trio
Nubay hirukotea osatu zuten.

KANPANDORREKO ERLOJUA

Kanpandorreko erlojua
Nere etxetik ikusten da.
Kanpandorreko erlojua
Nere etxetik entzuten da.
Ordua da Mikel, ordua da Peio!
Nere amak esaten du egunero!

Letra eta musika: Ines Mari



Ines Mari, Olaizola eta Moises Maiztegi
(Gila Taldea) Labegain soziedadean.

(Aranda eta Goikoetxea bandurriekin, Ramiro Larrañaga laudakin, Bizente Mari Olaizola, gure aitta Eustaki eta ni gitarriekin) Santa Zezilia egun-egunian goizeko hiruretan soziedadian juntau eta kalera urtetzen genduan. 2 edo 3 urtian egin genduan hori.

Noiz laga zenduan musika eskolia?

96xan. Etxian laguntza bihar zeben, tia gaizki zeguan, eta nekatuta neguan ordurako.

Zela gogoratzen dozuz urte harek?

Trio Nubay-kin 65etik 68ra egon giñan, Badiola, Urizar eta hirurok. Hegoamerika guztiko kantauak jotzen genduzen: Venezuela, Mejiko, Paraguay (Guarani indixuenak) eta Perukuak... gero *Duo Plaentxi* mejikanetan zentrau da.

Premixo batzuk irabazi genduzen, Eibarko *Gallo de Oro* esaterako, eta 1967xan TVE n urten genduan, *Primer Aplauso* izeneko programan. Disko bat euskeraz egitteko proposamena be egin zoskuen. Topera heldu giñan, oin beste modu baten izango ziran gauzak baina sasoi hartan ezin izan zan jarraitu.

Los Mansos taldiakin be jo zenduan...

8 hilabete egin neban taldian. Gitarra elektrikua eta organua jotzen nittuan txandaka. Ondo irabazten genduan baina oso gogorra zan. Ixa egunero ensaiatzen genduan eta asteburutan bodak eta kontzertuak, 2 eta 3 egunian batzutan. Eta astelehen goizian Saciara lanera.

Beste talderen baten jo zenduan?

Trio Nubay eta gero Nerea Gaztelumendi eibartarrakin ibili giñan Moises anaia eta bixok. Nereak kantau eta guk akonpañamientua egiten zotsagun. Iraultza eta holako kantauak jotzen genduzen, beran aitak egindakuak. Beste alde batetik,

Gila taldea zeguan. Argentinako "zambak" kantatzen genduzen hiru ahotsetara, bombo txiki batekin. Inazio Olaizola, anaia eta hirurok. Maria Antonia be beti zebilen gurekin. *Mansosekin* hasi aurretik be

"Gure aurrekuak oso ondo kantatzen zeben bi ahotsetara eta harekin asko ikasi genduan"



"Don Asensio armoniaz emondako esplikaziñuakin aluzinau egin neban"

Atahualpa Yupankin bersiñuak kantatzen ibili nitzan eta egin nittuan kantaldi batzuk.

Zer izan ziran zuendako Beatles edo Rolling Stones moduko taldiak?

Aldaketia demasa izan zan. Hain-

beste aukera zabaldu ziran: kantatzeko beste era batzuk, instrumentalki...ez zan serixo kantau bihar, saltoka be kantau zeikian. Etxe askotan txoke bat sortu zan, melenas haren musikia etxian sartziarren.

Zela gogoratzen dozu plazentziako bizitza musikala?

Allegroko mobimentua inportantia izan zan. Musika munduko jentia elkartzen zan bertan herrixan girua sortzeko. Otxotia be bazeuken eta inguruko herrixetara egin ziran urteerak. *Blue Bells*ak be bazeren, Abesbatza... Imanol itsua eta Regilon be goguan dakara, plazan jotzen zeben soiñua. San Inazio bandia... eta txistua, doiñu hori ezin da ahaztu. Beti egon dira txistulariak herrixan.

Ze musikari aipatuko zenduke?

Ramiro Larrañaga aparta zan. Musikarako abilitade haundixa zekan, eta persona oso jatorra. Don Asensio be oso inportantia izan zan. Armoniari buruz emon zoztan esplikaziñuak aluzinauta laga ninduan. Kuadro batekin konparau zoztan, kuadro bat ondo begiratzeko, koloriak, matizak... armonizaziñuak be hola bihar zebala. Simple eta jakintsua. Ezer ez eta dana izan zan. Gaur egunian zela ikusten dozu Plazentzia musika aldetik?

Gaur egun dana daukagu bandia kenduta. Lehen musikuak hatzaparrakin señalauta genden. Oin, berriz, generalizau egin da eta hori da komeni dana.

Zer izan da musikia zure bizitzan?

Dana, gehixen bete nabena. Alde batetik, umiekin oso gustora egin dot lan; satisfaziño haundixa emon dosta. Beste alde batetik taldietan ibili naitzenian lagunak egin ditut, eta hori da inportantiena. Yupalkik esaten zeban: "lo primero el hombre y luego todo lo demas".

Asteburu betea Gaztetxean Kokeinen kontzertuarekin



Soraluzeko Gazte Asanbladak "Soraluzeko Gaztetxea martxan" izenburupean antolatutako kultur egitarauri asteburu honetan emango zaio bukaera. Azaroak 25 eko "Play in

Soraluze" poesia-irudi erakusketa eta Brit, Mikel, Egiluz eta Pottoka kantautoreen kontzertuaren ostean, zapatua bete-betea dator.

Eguerdiko 14etan bertso bazkaria egingo da Gaztetxean Ohiana Bartrabilbotarra eta Ministro azpeitiarra bertsolariekin. Arratsaldeko 20:00etan Galtzagorri txarangak herriko kaleak alaituko ditu eta gauean, berriz, Eibarko Kokein rock taldeak kontzertu "berezi berezia" eskeiniko du gaueko 23:00etatik aurrera, Deskiziadxs taldearekin batera.

Karta jokoan irabazleak

Joan den zapatuan banatu ziren aurtengo jubilauei etxeko karta txapelketako sariak. Hauek izan ziren onenak: Trukean 1go, Eusebio eta Benito Oregi; 2., Ventura Mendizabal eta Lorenzo Ariznabarreta. Tutean 1go, Segundo Gómez eta Matías Rodríguez; 2., Antonio Martín eta Antonio Ramos. Briskan 1go, Arantxa Alberdi eta Carmen Arrieta; 2., Emiliana eta Dolores Carrasco. Musean 1go, Faustino Ruiz eta Joaquin Carmona. 2., Marino Azkona eta Félix Cifuen-



tes. Gaur (hilak 26) 80 urtekoen bazkaria izango da jubilatuen etxean. 57 jubilatuk eman dute izena.

Bertsolari Txapelketaren Finalerako autobusa

Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolak autobusa antolatu du Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finala ikustera joateko. Abenduaren 18an jokatu da final handia, lehen aldiz Bilboko Bilbao Exhibition Center-en. 12.000 ikuslerendako lekua izango bertan baina bertso eskolako arduradunek sarrerak aurrez hartzea komenigarria dela ohartarazi nahi dute. Autobusean izena eman eta sarrerak lortzeko, 662214026 mugikorrera deituta egin daiteke. 14 Plaza gelditzen dira autobusean.

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 13an

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna izango da, "Euskara jalgi hadi mundura!" lema-ekin bataiatu dutena erakunde publikoek. Egun horretarako herriko euskalgintzako taldeek zehaztu gabe dauden beste ekimen batzuen artean euskararen aldeko mural pintaketa bat egiteko asmoa adierazi dute. "Euskal Herrian Euskaraz, nahi dugu hitz eta jolas, lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz!" izango da muraleko idatzia.

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!
| Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

JABIER ALBERDI
HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA
KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.

Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

SAN ANDRES
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



AURTENGO KARAKATEKO IGOERAN 31 korrikalarik hartu dute parte. Tartean Ariznabarreta, Azkorbeitia eta Arrieta plazentziatarak. Irabazleak Mikel Albeniz donostiarrak, 31 min. eta 5 seg. behar izan zituen Elgoibartik mendi gainera igotzeko. Gureak minutu gitxira heldu ziren.

Jauregi DV Torneoko erdifinaletan

Iñaki Jauregi eta Olazabalek DV txapelketako finalerdia jokatu dute abenduaren 6an Tolosan, Olaetxea-Apr aiz bikotearen aurka. Txapelketa hasi zuten 16 bikoteetatik 4 bakarrik geratzen dira, eta 4ak txapelketa garrantzitsu hontako finalerako txartela eskuratzen saiatuko dira. Torneo berean, Atxotegi ere final laurdenetara iritsi da baina ezin izan zuen finalerdietara heldu. Bestalde, igande honetan Getxoko txapelketako erdifinalak ere jokatu ditu Jauregik, Olazabalekin Mundiñano-Iparragirren aurka.

Soraren garaipen garrantzitsua

Soraluzeko talde nagusiak garaipen garrantzitsua lortu zuen joan den larunbatean Zestoa 4 eta 2 mendean hartu ostean. Partidua galtzen hasi baziren ere, partiduari buelta ematea lortu zuten, markagailuan 4 eta 1 eko emaitza jarri. Partiduaren ondarran Zestoa 4 eta 2 bigarren gola egin zuten. Liderraren aurka gaur (hilak 26) Emaitza honek sailkapenean gora begira jarri du taldea, eta gaur arratsaldeko 3:30etan Antzuolan liderraren kontra neurtuko ditu indarrak.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

ATXOTEGI

Atxotegi- Larrañaga	18
Mendizabal-Azkarate	10
Gipuzkoako klub artekoan	
Atxotegi-Portu	22
Barrerros Alonso (Lazkao)	9

JAUREGI

Getxoko final laurdenetan

Olazabal-Jauregi	22
Albizuri-Asier Bengoetxea	17

LASKURAIN

Chaffee-Laskurain	18
Berasaluz Aukin	9
Larralde-Zubieta	22
Baleztena-Laskurain	17

DV Torneoa final laurdenetan

Atxotegi-Linzoain	12
Urrutikoetxea-Diaz de Ulzurrun	22

FUTBOLA

Sora 4- Zestoa 2 (reg.)
Luberri 8- Sora 3 (jub.)
Sora 5- Urki 3 (kad.)

AGENDA

PELOTA

AZAROAK 27 Getxoko finalerditan

Olazabal-Jauregi
Mundiñano-Iparragirre

ABENDUAK 6 DV Torneoko

erdifinalak, Tolosan

Olazabal-Jauregi
Olaetxea-Apr aiz

Telefonia 75 24 09

ARRANO

tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Etxabe Harategia



Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375



SALAZAR

Altzariak

Altzariak-Apaindurak

Sukaldeak - Elektratresnak

Errekalde, 7 -20590 Soraluze Telefonia/Faxa: 943752388

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Arianne Unamuno Fado kantaria

Gaur (hilak 26) arratsaldeko 19:30etan Portugalko fadoak entzuteko aukera izango dugu kapillan Ariane Unamuno, Domentx Uzin eta Aner Ugalde plazentziatarren eskutik. Hiruretan ahotsa jarriko duena harrapatu dugu, Arianne, eta berari galdetu diogu emanaldiaren nondik norakoez.

Adina

22 urte.

Musikazaletasuna noiztik?

Berezkua izaten da, nik uste. Oso ume nintzanetik haundituaz janda, urtiekina batera.

Instrumentoren bat jotzen dozu?

Jo jo...saiatu egiten naizela esango dot. Flautiakin hasi nitzan eta gero panderua eta trikitixa pixkat; oin saxuakin enkapritxau naiz.

Kanturako zaletasuna noiztik?

Nere inguruan beti kantau izan da asko, eta batakin edo bestiaquin, beti kantuan ibiltzen naiz.

"Faduak jo eta kantatziaz gain interpretatu egiten dira sentimenduz"

Noiz entzun zenuen lehenengoz fado bat?

Telebisiñoko umien kantu-lehiaketa baten. Neskatala bat "Uma Casa Portuguesa" kantatzen. Grabauta geratu jatan.

Faduak tristiak dirala diñue. Ze gai jorratzen dabe?

Herrimina, maiteminak sortutako bihotzeko minak, itsasua eta mari-nelen kontuak...aittaten dira, baina fado alaiak be badare.

Zegaitik da zaila faduak interpretatzia?

Oso letra sakonak dakez eta bertan esaten dana barrenian sentitzia eskatzen dabe, gero norberak entzule edo ikusliari transmititzeko.

Zeintzuk joko dozue gaur?

Domentxek gitarra espainola eta portugesa joko ditte txandaka;

BERTSO BEGIZ

Batzutan poza eta besteetan pena, makurraraz lezake boteretsuena.

Entzun ta inguruan aldatzen da dena. Kantuz esan daiteke hitzez ezin dena. Horixe da Kapillan gerta litekena.

NEKO

*Doinua:
Espainian behera...*



Arianne Unamuno, fado kantaria.

Anek flautia kantu gehixenetan, eta nik kantuan.

Fadistarik entzun dozu inoiz zuzenian?

Bai, Lisboako Alfama auzuan, andrak eta gizonak. Ahots oso berezixa dake eta emozioñua transmititzeko gaittasun haundixa.

Musika hau zuzenian entzutekua da? Zegaittik?

Faduak jo eta kantatziaz gain, interpretatu egiten dira. Musikariak sentidu egiten dau musikia eta hitza, eta hori gorputz adierazpenian islatzen da.

Ze fadista dozu gustoko?

Amalia Rodriguez modukorik ez dot entzun.

Ze beste musika mota entzuten dozu?

Jazza asko gustatzen jata. Funky, bossa nova, kantautoriak, euskal musika herrikoia... danetik, ba-koitza bere momentuan.

Ze betetzen dau musikiak zure bizitzan?

Musikia nerekin batera dator. 6.zentzumena moduan da. Abestu, jo, entzun, dantzatu...jaterakuan gatza edo azukarra izaten dan moduan da nere bizitzan musikia, ezinbesteko osagi bihurtu da.

Kanpora zoiazela esan dosku txoritxo batek.

Guatemala aldera hegan noia berriro be, hango kabira bueltan denporaldi baterako. Etorri nahi badozue nerekin...

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Bolia taberna



Etxaburueta
Tel.: 943 75 11 04
20590 Soraluze

Argazki zaharra



Los Mansos taldea 1968. urtean

1968 an etaratako argazki honetan Los Mansos eta Ines Mari ageri dira, Eskoriatzan kontzertu bat emon ostian. Egun hartan Ines Marin aurkezpena egin zan; Urizarrek taldea laga bihar zeban eta bera sartu zan ordezko.

Argazkian: Ramon Pía, Jesus Urizar, Jose Martin Rodríguez, Ines Mari Maiztegi, Ramon Aranzasti eta Juan Luis Ibarzabal.

Iturria: Ines Mari.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

Deitu

943 75 13 04 ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

Aurreko alean...



ERANTZUNA

Cadena 100eko kartela falta da

IRABAZLEA

Soraya Oruesagasti



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa **943 75 18 91**
Faxa **943 75 24 58**
E - maila: etxehun@teletel.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69





Ugaraxo

2005eko azaroa



Ikasturteko lehenengo txangoa Goierrira!!





Kaixo Soraluzetarrok:

Haur hezkuntzako 3 urteko haurrak gara. Ikusten duzue-nez gure ikastetxean ere, usadioak ikaste aldera, gaztañerre eguna ospatzen dugu.

Ostiralean azokarekin eman genion hasiera, hemen argazkian ikusten duzuen bezela.

Astlehenean berriz gaztañerre

eguna, denok danbolinaren inguruan, bero-bero, gaztainak noiz erre zain gaituzue.

Mmmm! Zein goxo dauden! Batzuk bat jan, beste batzuk bi eta besteak gaztain bat ere ez eta denak amantzako. Amantzako denak? Aitaxorentzat? Anai-arrebentzat? Beno, beno, banatu, banatu ditugu.



TXIKI - INKESTA

Zela ospatu zenduen gaztañerre eguna?
Marrazkilo karrera zelakua izan zan?

JOSU ALVAREZ, 5 URTE

Gaztañerre egunian gauza asko egin genduan. Barruko patixuan dantzan egin, gaztaina beruak jan eta gero marrazkilo karrera. Batzuk geldi geratu ziran. Nik esaten neban "aupa, aupa!"

**MARTA RIVERO, 5 URTE**

Bi borobil margotu ziran lurrian eta marrazkiloak batetik bestera jua bihar ziran. Marrazkiloak ez genduzen guk topau. Beste gelak ekarri zittuen. Guria bigarren geratu zan

**MARKEL GOROSTIDI, 5 URTE**

Pasauta dago eta ahaztuta dakat pixkat. Gure marrazkiloa marran geratu zan, gutxi-gutxi ibili zan. Beste batzuk azkarrago ibili ziran. Gaztaiñak be jan genduzen. Azala kendu eta barrura

**YAIZA FULGENCIO, 5 URTE**

Marrazkiloak haundixak ziran. Bi motelak, hiru azkarrak eta bestiak geldi geratu ziran. Andereño Milak tranpa egin zeban eta bateri bultza egin zotsan eskuakin

**LOREA URIARTE, 5 URTE**

Gaztainak jan genduzen, bero-beruak. Gero marrazkiloen karrera. Batzuk azkar zebizen, beste batzuk poliki eta beste batzuk geldi geratu ziran. Guria bigarren geratu zan

**XABIER ARRIAGA, 9 URTE**

Gure marrazkiloa berdia zan. Guk ez genduan topau, andereñuak ekarri zeben. Guria bigarren geratu zan eta azkena gorrixa. Zortzi marrazkilon arteko marrera izan zan.

**Jai, jai, jai, gaztainaz blai (5. maila)**

Azaroaren hamalau, astelehenean, gaztainerre eguna ospatu genuen denok ikastetxean eta, honetarako, 5. mailakook bertso eta lelo hauek asmatu genituen; ea gustatzen zaizkizuen:

Soraluzeko herrian
gaztainerre eguna
danbolinean daude
gaztaina mordua.
Rau,rau,rau,rakataplau
gaztaina mordua
euki beharko dugu
bete kukurutxo.

Ume eta irakasle
etorriak dira
patorra atera
dantzak ikustera.
Rau,rau,rau,rakataplau
dantzak ikustera
hauek bukatu ostean
Gaztainak jatera.

Doinua:
Elurra teiltuan



PLAZENTZIATAR GAZTETXOAK BURDIN BIDEAN ZEHAR

Heldu zaigu eguna!! Ikasturteko lehenengo txangoa!! Nora? Goierrira. Noiz? Azaroaren 18an.

Abiatu eta Zerain herrian hamarretakoa. Oso herri polita iruditu zitzaigun hura; txikia eta txukuna. Bertan, herriaren historia kontatu ziguten, urteetako bilakera, alegia. Baserri eta meategietan erabiltzen zituzten hainbat tresna zahar erakutsi zizkiguten, aintzina herrian egon zen kartzelan presoak nola edukitzen zituzten eta Goya margolariaren birraitona han jaioa zela azaldu ere.

Handik, berriz ere autobusa hartu, eta Aizpea auzoan dauden burdin meategi zahar-zaharrak ikusteko aukera izan genuen. Bisitaldiaren gidariak, meategiak nola uztiatzen ziren kontatu zigun, baina zirrargarriena galeria ilunetan sartzea izan zen, armiarma erraldoi eta xaguzaharrez josita baitaude. (Egia esan..... guk ez genuen bat bera ere ikusi).

Legazpiko " Mirandaola " auzoa izan zen gure azkenengo geldiunea: burdinola zaharra, Patrizio Etxeberriaren aginduz, mirari baten omenez, eraikitako kapilla eta burdinaren museoa ikusi genituen hemen.

Eguraldi ederra izan genuenez, han dagoen parkean bazkaltzeko eta jolas-terko aukera izan genuen, eguna hasi bezain ondo bukatzeko.

Bide-erakuslea aurkitu dut nire etorkizunerako Euskadiko Kutxan.

Nire planetarako konpainiarik egokiena lortu dut: Euskadiko Kutxa. Profesional-taldea dut ondoan uneoro, nire etorkizuneko pentsioa bermatuko duen plana aukeratzen laguntzeko. Ahalik eta zerga gutxien ordaintzeko zer egin aholkatzen dit beti. Etorkizunerako bide-erakuslerik onena dut. Lasaitasuna konkistatu dut.

Eta, gainera, aurtien planari egiten dizkiodan ekarpenekin, oparia aukeratu dezaket.

JUANITO OIARZABAL
ALPINISTA



Euskadiko Pentsioak BGAE Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitatearen Aurreikuspen Planak.

Zurekin elkarlanean


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Unai Ormazabal Iraola
Kolegiatu Zenbakia 947

- Bizkarreko mina
- Esginzeak
- Tendinitisak
- Masajeak
- Erreuma
- Etxeetara fisioterapia
- Istripu ondorengo errehabilitazioa
- Kirol osteko errehabilitazioa

Altos Hornos Industrialdea • Telleria, 6 bis - Of.11 • 20570 BERGARA (GIPUZKOA) • Tel. 943 76 53 35 / 626 900 608 • ormazabalfisioterapia@yahoo.es

ABENDUAREN **2** AN IREKIERA OFIZIALA!



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazoen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak